**ATHELTIC-EK LEZAMAN DUEN KIROLGUNEARI BURUZKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETAREN INGURUMEN-EBALUAZIOA EGITEKO ERREFERENTZIAKO AGIRI OSAGARRIA, PLANAREN PROZEDURAK PLANEN ETA PROGRAMEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN URRIAREN 16KO 211/2012 DEKRETURA EGOKITZEKO.**

**DOCUMENTO DE REFERENCIA COMPLEMENTARIO PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL DE LA MODIFICACION DEL PLAN ESPECIAL DE LA ZONA DEPORTIVA DEL ATHLETIC CLUB EN LEZAMA, A EFECTOS DE SU ADAPTACIÓN PROCEDIMENTAL AL DECRETO 211/2012, DE 16 DE OCTUBRE, POR EL QUE SE REGULA EL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATEGICA DE PLANES Y PROGRAMAS .**

9/2006 Legearen 9. artikuluan eta 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ingurumen-organoak erabakiko du ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenak zer irismen izango duen eta zenbateraino zehatz eta espezifiko izan behar duen, ukitutako administrazio publikoak eta herritar interesdunak identifikatu eta kontsulatu ondoren, erreferentziako agiri bat igorriz. Erreferentziako agiri horrek, gainera, barne hartuko ditu ingurumen-irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuen adierazleak eta kasuan-kasuan aplikagarri diren iraunkortasun-printzipioak. Bestalde, ingurumen-organoak informaziorako eta kontsultarako moduak definitu beharko ditu.

En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 y en el artículo 10 del Decreto 211/2012, el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso. Asimismo, el órgano ambiental deberá definir las modalidades de información y consulta.

Beraz, Ingurumeneko Foru Sailari dagokio, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 44. artikuluak emandako eskuduntzak baliatuz, eta, orobat, planen eta programenen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuarekin bat etorriz, erreferentziako agiria egitea, ingurumen-ondorioetarako

En consecuencia, corresponde al Departamento Foral de Medio Ambiente, en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y de acuerdo, asimismo, con el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes

soilik, Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketaren inguruan.

y programas, formular el Documento de Referencia, a los solos efectos ambientales y en relación a la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama.

Lezamako Udalak, 2012ko abuztuaren 8an Ingurumeneko Foru Sailaren erregistroan sartutako idazkiaren bidez, eskatu zuen Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketaren ingurumen-ebaluazioa egiteko erreferentziako agiria igor zedila.

El Ayuntamiento de Lezama, con fecha de entrada en el registro del Departamento Foral de Medio Ambiente de 8 de agosto de 2012, solicitó la emisión del documento de referencia para la evaluación ambiental de la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama.

Ukitutako administrazio publikoak eta herritar interesdunak identifikatu eta kontsultatu ondoren, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluan eta ingurumenaren gaineko baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa betez, ebatzi zen Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketaren ingurumen-ebaluazioa egiteko erreferentziako agiria egitea, 2012ko urriaren 4ko 1369. zenbakiko Foru Aginduaren bidez.

Tras llevar a cabo el trámite de identificación y consulta a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y en el artículo 6 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, se resolvió formular, mediante Orden Foral número 1369 de 4 de octubre de 2012, el Documento de Referencia para la evaluación ambiental de la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama.

2012ko azaroaren 20an, urriaren 16ko 211/2012 Dekretua sartu zen indarrean, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. Eta, beraz, dekretu hori aplikatu behar zaio Athletik Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketari.

Con fecha 20 de noviembre de 2012 entra en vigor el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, siendo de aplicación a la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama.

2012ko abenduaren 18an, Foru Sail honetako Ingurumeneko Zuzendaritza

Con fecha de 18 de diciembre de 2012, la Dirección General de Medio Ambiente de

Nagusiak, Plan Bereziaren Aldaketaren harira, Ingurumenaren Iraunkortasunari buruzko Txostena bidaltzeko eskatu zion Lezamako Udalari, eta, horrekin batera, 211/2012 Dekretuko V. Eranskinean jasotako inprimakia bidaltzeko, behar bezala beteta, erreferentziako agiri osagarri bat egin ahal izateko, edukia Dekretu berriak eskatzen zuenari egokituta.

Lezamako Udalak, 2013ko urtarrilaren 11n Ingurumeneko Foru Sailaren erregistroan sartutako idazkiaren bidez, Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketak ingurumenean izango duen eraginari buruzko baterako ebaluazioa bidali zuen. Azterlan hori IDEMA Ingenieria del Medio Ambiente SL enpresak 2012ko abenduan egina da, eta horren barruan, eranskin gisa datoz Europako Ingurumen Erakundeak (EIE) 2012ko abenduan egindako hots-azterketa eta 211/2012 Dekretuaren V. Eranskinean datorren inprimakia, behar bezala beteta.

Txosten honek osatu egiten du 2012ko urriaren 4ko 1369. zenbakiko Foru Arauaren bidez bidalitako erreferentziako agiria, eta, beraz, txosten hau bidalita, irizten zaio ingurumen-ebaluazioa egiteko erabili den prozedurak betetzen dituela 211/2012 Dekretuko 8., 9. eta 10. artikuluetako eskakizunak.

Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketaren ingurumen-ebaluazioa egiteko erreferentziako agiria bidali ondoren, erakunde eta entitate hauen erantzunak jaso ditugu:

este Departamento Foral solicita al Ayuntamiento de Lezama el Informe de Sostenibilidad Ambiental de la Modificación del Plan Especial, junto con el formulario previsto en el Anexo V del Decreto 211/2012 cumplimentado, al objeto de emitir un Documento de Referencia Complementario, ajustado en cuanto a su contenido a lo requerido por el nuevo Decreto.

El Ayuntamiento de Lezama, con fecha de entrada en el registro del Departamento Foral de Medio Ambiente de 11 de enero de 2013, remite el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental de la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama, elaborado por IDEMA Ingeniería del Medio Ambiente, S.L. en diciembre de 2012 y que incluye como anexos un estudio acústico elaborado por IMAE, Instituto Medioambiental Europeo, S.L. en diciembre de 2012 y el formulario previsto en el Anexo V del Decreto 211/2012 cumplimentado.

Con la emisión del presente informe, que complementa el Documento de Referencia ya emitido mediante Orden Foral número 1369 de 4 de octubre de 2012, se considera que el procedimiento de evaluación ambiental llevado a cabo cumple con los requerimientos de los artículos 8, 9 y 10 del nuevo Decreto 211/2012.

Con posterioridad a la emisión del Documento de Referencia para la evaluación ambiental de la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama se han recibido respuestas de los siguientes organismos y entidades:

- Herri Lan eta Garraioko Foru Saileko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza nagusiak uste du Plan Bereziaren Aldaketak ez diela batere eragiten foru errepideei eta bere babes-zonei. Gomendio gisa, adierazi du Plan Berezian txerta litezkeela Mankomunitateak sustaturiko bidegorriarekin konektatuko duten oinezkoentzako eta bizikletazaleentzako elementuak. Hain zuzen, bidegorri horrek, ekialdetik mendebaldera, Txorierriko udalerri guztiak zeharkatuko ditu.

- La Dirección General de Infraestructuras Viarias del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes considera que la Modificación del Plan Especial no produce afección alguna a las carreteras forales ni a sus zonas de protección. Como recomendación señala que podrían habilitarse en el Plan Especial elementos de conexión peatonal y ciclable con el bidegorri promovido por la mancomunidad y que atravesaría de este a oeste todos los municipios del Txorierri.

- URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du Plan Bereziaren Aldaketak ez duela modu adierazgarrian eragiten bere eskumeneko edo kudeaketa-esparruko arloetan.

- La Agencia Vasca del Agua, URA informa que la Modificación del Plan Especial no incide significativamente en materias de su competencia o ámbito de gestión.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du ez dagoela, berak dakiela, interes kulturaleko elementurik zedarritutako eremu horretan.

- La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco señala que no les consta la existencia de ningún elemento de interés cultural ubicado en el área delimitada.

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzak Plan Bereziaren Aldaketan txertatu beharreko hainbat ingurumen-irizpide estrategiko zehaztu ditu, eta dagokion Ingurumenaren Iraunkortasunari buruzko Txosteneko atalean aztertu beharreko planak eta programak zerrendatu ditu.

- La Dirección de Planificación Ambiental del Gobierno Vasco señala una serie de criterios ambientales estratégicos a integrar en la elaboración de la Modificación del Plan Especial y lista los planes y programas a analizar en el apartado correspondiente del Informe de Sostenibilidad Ambiental.

- Kulturako Foru Saileko Kultur Ondarearen Zerbitzuak baieztatu du ez dagoela ez arkitektura-ondasun kalifikaturik edo inbentariaturik, ez arkeologia-ondasun kalifikaturik edo inbentariaturik, ez eta ustezko arkeologi zonarik ere.

- El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Cultura confirma la inexistencia de bienes calificados o inventariados arquitectónicos, de bienes calificados o inventariados de carácter arqueológico y de Zonas de Presunción Arqueológica.

- Eusko Jaurlaritzako Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako

- La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco señala que la

Zuzendaritzak adierazi du Plan Bereziaren Aldaketak ez diela modu adierazgarrian eragingo nekazaritza-lurrei, eta, beraz, ez du beharrezkotzat jotzen horren inguruko txostenik egitea.

Modificación del Plan Especial no implica afección significativa sobre suelos agrarios y, por tanto, no considera necesario emitir informe al respecto.

- IHOBE Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoak adierazi du esku hartuko den zonan ez dagoela lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan barneratutako lurzatirik.

- La Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE señala que en la zona objeto de intervención no existen parcelas incluidas en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak adierazi du jarduketa-eremuan ez dagoela Partzuergoaren oinarrizko sareko instalaziorik, eta uste izatekoa dela ez dagoela behar berririk eska litezkeen edo Partzuergoaren hurbileko hornikuntza- eta saneamendu-sareei eragin liezaieketen baliabide eta isuriei dagokienez; beraz, adierazi dute alde horretatik ez dutela espedientearen kontrako ezer.

- El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia manifiesta que no existen instalaciones de Red Primaria pertenecientes al Consorcio en el área de actuación y que se entiende que no existen nuevas necesidades en cuanto a recursos y vertidos que pudieran demandarse o afectar las redes próximas de abastecimiento y saneamiento del Consorcio, por lo que no se señala ninguna objeción en ese sentido al expediente.

Jasotako erantzunak Lezamako Udalari bidali zaizkio, kontuan har ditzan plana eta ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostena idaztean.

Las respuestas recibidas han sido remitidas al Ayuntamiento de Lezama para su consideración en la redacción del plan y de su Informe de Sostenibilidad Ambiental.

Sustatzaileak bidalitako dokumentuak aztertu ondoren, eta 211/2012 Dekretuak erreferentziako agiriaren edukiaren inguruan xedatutakoa kontuan hartuta, ondoko kontsiderazio hauek eransten dira, 2012ko urriaren 4ko 1369. zenbakiko Foru Aginduaren bidez bidalitako erreferentziako agiria osatzeko:

Analizada la documentación remitida por el promotor y considerando lo establecido en el Decreto 211/2012 respecto al contenido del Documento de Referencia, se incluyen las siguientes consideraciones para complementar el Documento de Referencia emitido mediante Orden Foral número 1369 de 4 de octubre de 2012:

1 ª) Plan Bereziaren Aldaketari aplikagarri zaizkion ingurumen-helburuak erreferentziako agiriko 2.2. idatz-zatian

1ª) Los objetivos ambientales aplicables a la Modificación del Plan Especial son los establecidos en el apartado 2.2 del

Alda. Rekalde, 30.
48009 Bilbao

ezarritakoak dira. Ingurumen-helburu horiek hirigintzako helburuen eta helburu funtzionalen modu berean tratatu behar dira.

Besteak beste, iradokizun hauek, erreferentziako agiriko 3.6 idatz-zatian jasotakoak, lagungarri izango dira aipaturiko ingurumen-helburuak lortzeko.

a) Energia berriztagarrien instalazioak aurreikustea eraikin berrietan. Garapen berrietan energia-autosufizientzia lortzen saiatzea litzateke.

b) Pentsatzea eraikinetako estalkiak garapen jasangarria sustatuko duten jarduketak ezartzeko aukera izan daitezkeela: energia berriztagarrien instalazioak, estalki berdeak, ura zentzu handiagoz erabiltzen lagunduko duten instalazioak, eta abar.

c) Euri-ura aprobetxatzeko eta ur grisak berrerabiltzeko sistemak aurreikustea.

d) Drainatze iraunkorreko diseinuak barneratzea eta azalera iragazgaitzen ezarpena mugatzea.

e) Gainazaleko aparkalekuen kopurua gutxitzea.

Plan bereziak zehaztapen jakin batzuk ezarri beharko lituzke iradokizun horiek (edo plantea litekeen beste batzuk) gauzatzeko, betiere jarritako ingurumen-helburuak lortzeko asmoz.

2ª) Aztertu egin behar da zer aukera dagoen Plan Berezian oinezkoak eta bizikletazaleak Herri Lan eta Garraioko

Documento de Referencia. Estos objetivos ambientales deben ser tratados de la misma manera que los objetivos urbanísticos y funcionales.

Entre otras, las siguientes sugerencias, ya recogidas en el apartado 3.6 del Documento de Referencia, contribuirían a alcanzar los objetivos ambientales señalados:

a) Prever instalaciones de energías renovables en los nuevos edificios. Se trataría de tender a alcanzar la autosuficiencia energética en los nuevos desarrollos.

b) Pensar en las cubiertas de los edificios como una oportunidad para implantar actuaciones que promuevan un desarrollo sostenible: instalaciones de energías renovables, cubiertas verdes, instalaciones que contribuyan a un uso más racional del agua, etc.

c) Prever sistemas de aprovechamiento del agua de lluvia y reutilización de aguas grises.

d) Introducir diseños de drenaje sostenible y limitar la implantación de superficies impermeables.

e) Reducir el número de aparcamientos en superficie.

El Plan Especial debería establecer determinaciones concretas para materializar estas sugerencias (o cualesquiera otras que puedan plantearse), siempre con el fin alcanzar los objetivos ambientales asumidos.

2ª) Debe analizarse la posibilidad de introducir determinaciones en el Plan Especial para localizar elementos de

Foru Saileko Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren txostenean aipaturiko bidegorriarekin konektatuko dituzten elementuak sartzeko.

3ª) Aurkezturiko zonakatze akustikoaren planoak oker kartografiko bat du, eta hori zuzendu egin beharko da. Plano hori trukerako formatu geokodetu baliozko batean prestatuko da, eta Plan Bereziaren dokumentu arauemailean txertatuko da.

4ª) Bidalitako ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterketan, egindako hots-azterketa oinarritzat hartuz, esaten da Plan Bereziak ziur asko beteko dituela kalitate akustikoaren helburuak eta immisio-muga aplikagarriak. Kontuan harturik eremuaren egoera eta ezaugarriak, aurreikusitako jarduketak eta hots-azterketan egiten den gaur egungo egoeraren analisia, Sail hau bat dator baieztapen horrekin.

5ª) Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua 2013ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean, eta, beraz, hori aplikatu behar zaio Plan Bereziaren Aldaketari.

6ª) Planteatutako alternatiben analisia egokitzat jotzen da Plan Bereziaren Aldaketa honen ezaugarrietarako.

7ª) URA Uraren Euskal Agentziaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren erantzunetan adierazitakoa kontuan hartuz, jadanik ez da beharrezkoa aztertzea garapen berriek zein eragin izan ditzaketen erreferentziako agiriko 3.5 idatz-zatian eskatzen den ur-hornikuntza eta -saneamendurako sistemaren

conexión peatonal y ciclable con el bidegorri mencionado en el informe de la Dirección General de Infraestructuras Viarias del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes.

3ª) El plano de la zonificación acústica presentado tiene un desajuste cartográfico que deberá ser corregido. Este plano se preparará en un formato geocodificado de intercambio válido y se incluirá como documento normativo del Plan Especial.

4ª) El Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental remitido, basándose en el estudio acústico elaborado, afirma que el Plan Especial cumplirá, previsiblemente, con los objetivos de calidad acústica y límites de inmisión aplicables. Considerando la situación y características del ámbito, las actuaciones previstas y el análisis de la situación actual que realiza el estudio acústico, este Departamento coincide con dicha afirmación.

5ª) El Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco ha entrado en vigor el 1 de enero del 2013 y, por tanto, es de aplicación a la Modificación del Plan Especial.

6ª) El análisis de alternativas planteado se considera adecuado a las características de esta Modificación de Plan Especial.

7ª) Considerando lo señalado en las respuestas de la Agencia Vasca del Agua, URA y del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, ya no es necesario el análisis del impacto de los posibles nuevos desarrollos sobre la capacidad del sistema para el abastecimiento y saneamiento de agua solicitado en el apartado 3.5 del

ahalemenean.

8ª) Ingurumenaren Iraunkortasunari buruzko Txosteneko dokumentu kartografikoetan, berariaz barneratu behar dira, beste batzuen artean, erreferentziako agiriko 3.9 idatz-zatian aipaturiko dokumentuak.

9ª) Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketaren araudian beren-beregi aipatuko da garapenerako plan eta proiektuen baldintza teknikoei buruzko agiriek barne hartu behar dituztela babes-neurri guztiak eta Ingurumenaren Iraunkortasunari buruzko Txosteneko ingurumen-zaintzako programa, erreferentziako agiriko zehaztapenen arabera doituak, plana garatzean bideragarri izango direla bermatzeko moduan.

10ª) Babes- eta zuzenketa-neurriak eta garapen-proiektuetan sartu behar diren ingurumen-kontrolak eraginkorrak izango direla bermatzeko bezain zehatzak izango dira. Aurrekontua zehaztu ahal zaien neurriak obra-unitate gisa barneratuko dira, eta proiektuetan partida ekonomikoa zehaztuko da. Aurrekonturik zehaztu ezin zaien neurriak baldintza teknikoen agirian barneratu beharko dira.

**11ª) Informaziorako eta kontsultarako moduak erreferentziako agiriko 4. idatz-zatian ezarritako berberak dira.**

12ª) 211/2012 Dekretua indarrean sartu ondoren, ez da beharrezkoa erreferentziako agiriko 5. idatz-zatian ezarritakoa.

Documento de Referencia.

8ª) Respecto a la documentación cartográfica del Informe de Sostenibilidad Ambiental, debe incluirse expresamente, entre otra, la documentación señalada en el apartado 3.9 del Documento de Referencia.

9ª) La normativa de la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama hará una referencia expresa a que los pliegos de condiciones técnicas de los planes y proyectos de desarrollo deben recoger todas las medidas protectoras y el programa de vigilancia ambiental del Informe de Sostenibilidad Ambiental, ajustados en función de las determinaciones del Documento de Referencia, de forma que se garantice su viabilidad en el desarrollo del Plan.

10ª) Todas las medidas protectoras y correctoras y los controles ambientales indicados que deban incorporarse a los proyectos de desarrollo han de hacerlo con el suficiente grado de detalle para que garanticen su efectividad. Aquellas medidas que sean presupuestables deberán incluirse como unidad de obra, con su correspondiente partida económica en los proyectos. Las que no puedan presupuestarse se exigirá que se incluyan en el pliego de condiciones técnicas.

**11ª) Las modalidades de información y consulta siguen siendo las establecidas en el apartado 4 del Documento de Referencia.**

12ª) Tras la entrada en vigor del Decreto 211/2012, no ha lugar lo establecido en el apartado 5 del Documento de Referencia.

13ª) Planak, gutxienez, barne hartu beharko ditu, galdatzen diren gainerako txosten eta dokumentu zehatzak alde batera utzita, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 1. artikuluan adierazitako agiriak. Agiri horiek, 211/2012 Dekretuko 13.1 artikuluan galdatzen diren agiriekin batera, ingurumen-organo honetan aurkeztu beharko ditu planaren sustatzaileak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan aurreikusitako ingurumen-memoria igortzeko.

13ª) El plan deberá contener, al menos y sin perjuicio del resto de informes y documentación específica exigida, la documentación señalada en el artículo 31 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Esta documentación, junto con la exigida en el artículo 13.1 del Decreto 211/2012, deberá ser presentada por el órgano promotor del plan (en este caso el Ayuntamiento de Lezama) ante este órgano ambiental, a los efectos de la emisión de la memoria ambiental prevista en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

Ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39. artikuluko i) hizkian eta 67.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, sinatzaile honentzat ohorea da jaun txist prestu horren irizpean jartzea ondoko

En consecuencia y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39.letra i) y 67.1 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 206/2011, de 13 de diciembre, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente, el que suscribe tiene el honor de someter a V.I. la siguiente:

**EBAZPEN-PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE RESOLUCION**

**LEHENENGOA:** ATHLETIC KLUBAK LEZAMAN DUEN KIROLGUNEARI BURUZKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETAREN INGURUMEN-EBALUAZIOA EGITEKO ERREFERENTZIAKO AGIRI OSAGARRIA ONARTZEA, PLANAREN PROZEDURAK PLANEN ETA PROGRAMEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO

**PRIMERO:** Aprobar el DOCUMENTO DE REFERENCIA COMPLEMENTARIO PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL DE LA MODIFICACION DEL PLAN ESPECIAL DE LA ZONA DEPORTIVA DEL ATHLETIC CLUB EN LEZAMA, A EFECTOS DE SU ADAPTACIÓN PROCEDIMENTAL AL DECRETO 211/2012, DE 16 DE OCTUBRE, POR EL QUE SE REGULA EL

ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN URRIAREN 16KO 211/2012 DEKRETURA EGOKITZEKO.

PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATEGICA DE PLANES Y PROGRAMA, en los términos que anteceden.

**BIGARRENA:** Onarpen hau Lezamako Udalari jakinaraztea.

**SEGUNDO:** Notificar dicha aprobación al Ayuntamiento de Lezama.

| | |
|---|---|
| INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTZEKO GOI TEKNIKARIA / EL TECNICO SUPERIOR DE CALIDAD AMBIENTAL<br><br>Javier Cáceres Lafuente | INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIORAKO ATALEKO BURUA / EL JEFE DE LA SECCION DE EVALUACION DE IMPACTO AMBIENTAL<br><br>Iñaki Benito Iza |
| INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTZEKO ZERBITZUKO BURUA / EL JEFE DEL SERVICIO DE CALIDAD AMBIENTAL<br><br>Unai Gangoiti Ciscar | INGURUMEN ZUZENDARI NAGUSIA / LA DIRECTORA GENERAL DE MEDIO AMBIENTE<br><br>Maria Uribe Gerendiain |

Nolanahi ere, jaun txis prestu horrek bidezko dena ebatziko du.

No obstante, V.I. resolverá lo procedente.

Aurreko proposamenaren edukiarekin bat etorriz, hauxe ebazten da.

Conforme con la propuesta que antecede se resuelve de acuerdo con su contenido.

***301 zenbakiko FORU AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 21ekoa. Honen bidez ebazten da Athletic Klubak Lezaman duen Kirolguneari buruzko Plan Bereziaren Aldaketaren ingurumen-ebaluazioa egiteko erreferentziako agiri osagarria onartzea,***

***ORDEN FORAL número 301 de 21 de enero de 2013, por la que se resuelve aprobar el Documento de Referencia Complementario para la evaluación ambiental de la Modificación del Plan Especial de la Zona Deportiva del Athletic Club en Lezama, a efectos de su***

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ingurumen Saila
Departamento de Medio Ambiente

***planaren prozedurak planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretura egokitzeko***

***adaptación procedimental al Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.***

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 21ean

Izp./ Fdo.: Iosu Madariaga Garamendi

INGURUMENEKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE

Alda. Rekalde, 30.
48009 Bilbao